

Izen arrunten proposamenak Euskal Herriko zenbait txori espezierentzat

Anser cygnoides, Ardea herodias, Ixobrychus sturmii,
Porzana carolina, Limnodromus griseus, Limnodromus scolopaceus,
Phaethon aethereus, Thalasseus elegans, Picus vaillantii,
Zoothera aurea, Luscinia luscinia,
Amandava amandava, Estrilda melpoda, Estrilda troglodytes



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Miel Mari Elozegi, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko apirilean
Euskal Batzorde Ornitologikoa

Anser cygnoides

Antzaren familiako kide berezia, bere hanka labur eta moko zabalarekin. Lepo zuria dauka eta sabelalde laranja. Beltxargaren itxurako moko da bere ezaugarri bereizgarriena eta izen zientifikoaren arrazoia.

Mongolia eta Errusia artean egiten du kumaldia; negua, berriz, Txinan eta Korean. Gizakiak etxekotu egin du, munduko bazter guztietara eramanez, eta Euskal Herrian ere azaldu izan dira etxalde eta parkeetatik ihes egingako ale naturalizatuak.



Taxonomia

- **Familia:** Anatidae (52 gen.; 168 sp.)
- **Generoa:** Anser (11 sp.)
- **Sinonimoa(k):** -

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Anser_cygnoides
- <https://avibase.ca/946E4517>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik. Aldiz, "Munduko hegaztien izendegia" liburuxkan (Elhuyar, 2001) *beltxarga-antzara* azaltzen da.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Antzara honen moko da bere berezitasun nagusia eta, izen zientifikotik abiatuta, berdin-berdin izendatu da gure inguruko hizkuntza guztietan: *ánsar cisnal* (ES), *Oca cigne* (CA), *Oie cygnoïde* (FR), *Swan goose* (EN), *Schwanengans* (DE), *Zwaangans* (NL), *Svangås* (SV)... eta Europako gainontzeko ia hizkuntza guztietan ere antzera.

Proposamena

Ezaugarri fisikoak ezagututa eta 2001. urteko liburuxka jarraituz, *beltxarga-antzara* izan daiteke biderik errazena, aurrekoen lana aintzat hartuz, baina *antzara beltxarga* erabat baztertu gabe (*hontz gabirai* edo *txori zezen* ereduari jarraituz).

Proposamena: *Anser cygnoides*, *beltxarga-antzara*.

Beste aukera batzuk: antzara beltxarga.

Ardea herodias

Eurasian eta Afrikan ohiko den koartza hauskararen (*Ardea cinerea*) lehengusu amerikarra. Itxuraz, kolorez eta neurriz oso-oso antzekoak dira espezie biak. Alderik nabarmenena lepoan dute, *Ardea herodiasek* kumaldian gorrixegoa izaten baitu.

Amerika ipar eta erdiko lurralde gehienetan aurkitu daiteke, ingurumari horietako koartza arruntena delarik. Europan ere ikusi izan dira, oso noizbehinka, ale galdu bakan batzuk. Euskal Herrian ez da sekula behatu.



Taxonomia

- **Familia:** Ardeidae (19 gen.; 68 sp.)
- **Generoa:** Ardea (14 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Ardea wardi*, *Ardea lessonii*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Ardea_herodias
- <https://avibase.ca/93694BB5>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hegazti honek beste hizkuntza batzuetan duen izena aztertzeke orduan, bere 3 ezaugarri erabiltzen direla ikus daiteke: kolorea (hauskara/urdina), bizilekua (amerikarra/kanadarra) eta tamaina (handia).

Horrela ditugu, kolorea aipatuz, adibidez, Great Blue Heron (EN), Airone azzurro maggiore (IT), Garza azulada (ES) eta Grand Héron (FR). Hala ere, badirudi hizkuntza askotan jatorria azpimarratzen dela, Europako koartza hauskararen alboan, beste espezie hau "amerikarra" dela nabarmenduz, adibidez: Amerikansk gråhäger (SV), Bernat americà (CA) Garça-real-americana (PT), Amerikaanse Blauwe Reiger (NL), Kanadareither (DE).

Azken horietan ere, batzuetan "handia" dela aipatzen da eta beste batzuetan "urdin/hauskara" dela.

Edozelan ere, oro har, badirudi hizkuntza gehienetan Europako koartza hauskararen (*A. cinerea*) izenetik abiatzen direla bere lehengusu amerikarra izendatzeko.

Proposamena

Ardea generoko gainontzeko espezieak aztertuta (kolorez eta neurriz), eta goiko ereduak gainbegiratu ondoren, iruditzen zaigu euskarazko koartza hauskaran oinarrituta izendatu behar dugula *Ardea herodias*, gure koartza hauskararen kide amerikarra.

Aukerarik samurrena *koartza hauskara amerikar* litzateke, beste espezie-pare batzuetan egin dugunaren antzera (kaio hauskara amerikar, antxeta mokogorri amerikar, urre-txirri amerikar, ahate txistulari amerikar, zertzeta amerikar, txori zezen amerikar, eta abar).

Beste aukera batzuk ere azertu ditugu, koloreari eta ezaugarri fisikoei erreparatuta eta inguruko hizkuntza batzuetan hartutako bideari jarraituz, baina zalantzazkoagoak dirudite. *Koartza urdin* izan zitekeen, baina hobe dugu izen hori beste koartza "urdinago" batzuentzat gorde (*Ardea hunbolti*, adibidez). *Koartza handi* ere ez da egokiegia, ez baita koartzen arteko handienetakoa. Aukera hobe ematen du *koartza lepagorritzak*, nahiz eta kasu honetan ere badiren lepo gorri edo gorritzat duten beste zenbait espezie Ardea generoaren baitan.

Proposamena: *Ardea herodias*, koartza hauskara amerikar.

Beste aukera batzuk: koartza urdina, koartza lepagorritzat.

Ixobrychus sturmii

Euskal Herriko amiltxori txikiaren (*Ixobrychus minutus*) lehengusua eta bere generoko txikiena. Kolorez iluna da, azpialde argiagoarekin eta Sahara hegoaldeko hezeguneetan bizi da, Afrikako lurralde tropikaletako eskualde eta herrialde gehientsuenetan, geografikoki ondo zabaldua. Afrikako amiltxori ohikoena da.



Hegazti migratzailea da eta tarteka ikusi izan dira ale gazteak euren lurraldeetatik kanpo (batez ere Kanariar Uharteetan), baina Afrika iparraldean erabat ezohikoa da eta Europan are gehiago (esku batekin konta daitezke Europan behatutako aleak). Hala ere, 2023ko urtarrilean ale bat azaldu zen Lapurdin, Euskal Herrian lehenengoz.

Taxonomia

- **Familia:** Ardeidae (19 gen.; 68 sp.)
- **Generoa:** Ixobrychus (9 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Ardea gutturalis*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Ixobrychus_sturmii
- <https://avibase.ca/87EEBD3E>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Txori hau izendatzeko oso bide desberdina jarraitu da hizkuntzaz hizkuntza. Betiere "amiltxori" generiko batean oinarrituz, baina espezifikatzailea aukeratzeko 3-4 bide erabiliz. Batzuetan kolore iluna nabarmentzen da, Avetorillo plumizo (ES), Skiferrørdrum (NO); beste batzuetan bere neurri txikia, Dwarf bittern (EN), Pygmérördrom (SV); zenbait hizkuntzatan izen zientifikotik abiatu dira, Martinet menuet de Sturm (CA), Blongios de Sturm (FR); bukatzeko, bere jatorri afrikarra ere azpimarratu dute zenbait hizkuntzatan, Afrikaanse woudaap (NL), Tarabusino nano africano (IT).

Proposamena

Hegazti honen generikoak, lehenengo begiratuan, ez dauka zalantzarik: Europako amiltxori txikiaren taldekoa izanik, "amiltxori" izan liteke generikoa. Dena dela, ikuspegi zabalagoa izanik, eta kontuan izanik ardeidae familian 19 genero eta 68 espezie ditugula, iruditzen zaigu komeni dela genero honentzat generiko zehatzago bat proposatzea eta "amiltxori txiki" izan liteke generiko hori, Europan daukagun amiltxori txikiari (*Ixobrychus minutus*) espezifikatzailea erantsiz (amiltxori txiki eurasiarra, adibidez, arrazoi geografiko nabariengatik). Egitura binomial batetik trinomialera igaroko ginateke espezie-multzo honetan.

Espezifikatzaileari dagokionez, genero honetan 9 espezie ditugu, denak txikiak eta gehienak asiarrak edo ozeaniarrak. Hauxe da afrikar hutsa den bakarra.

Bestalde, kolore aldetik genero honetako espezie gehienak gorrixkak dira eta bi besterik ez urdin edo ilunak: *I. sturmii* eta *I. flavicollis*.

Hortaz, alderdi geografikoa zein kolorea izan daitezke espezie hau izendatzeko egokienak. Irizpide deskriptiboa lehenesten dugunez, koloreari helduko diogu eta, beraz, amiltxori txiki urdina (*I. sturmii*) eta amiltxori txiki beltza (*I. flavicollis*) izango genituzke.

Proposamena: *Ixobrychus sturmii*, amiltxori txiki urdin.

Beste aukera batzuk: amiltxori txiki ilun, amiltxori txiki afrikar.

Porzana carolina

Uroilanden taldeko kide nahiko tipikoa, neurri txikikoa, bular urdinduna eta bizkarrarrea. Hanka berdexkak ditu eta aurpegian maskara ilun txiki nahiko bereizgarri bat, leporantz zabaltzen dena.

Espezie migratzailea, Ameriketako aintzira eta hezegune askotan aurkituko duguna. Tarteka ale batzuk Europara iritsi izan dira. Euskal Herrian ez dugu sekula ikusi, baina bai inguruko lurraldeetan (Santanderren, adibidez).



Taxonomia

- **Familia:** Rallidae (39 gen.; 141 sp.)
- **Generoa:** Porzana (6 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Rallus carolinus*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Porzana_carolina
- <https://avibase.ca/2CC21529>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hegazti honek beste hizkuntza batzuetan duen izena bi talde handitan banatzen da. Hizkuntza batzuk latinetik abiatu dira eta horrela ditugu, besteak beste, Marouette de Caroline (FR), Rasclat pintat de Carolina (CA), Carolinasumpfhuhn (DE), Kureczka karolińska (PL), Karolinasumphöna (SV) eta abar. Beste batzuek, aldiz, ingeleseko "sora" hartu dute abiapuntu, ustez Ipar Amerikako bertako hizkuntzaren batetik eratorria dena, adibidez: Sora (EN), Polluela sora (ES), Sora (PT) eta Soraral (NL).

Proposamena

Izen generikoari dagokionez, Porzana eta Zapornia generoko espezieentzat "uroilanda" erabiltzen dugu euskaraz.

Espezifikatzaileari dagokionez, bi bideak izan daitezke egokiak, bai izen zientifikotik abiatzea (*uroilanda karolinarra*) zein ingelesetik edo Amerikako hizkuntza indigena batetik abiatzea (*sora uroilanda*). Zalantzekin, baina bigarren horren alde egingo

genuke, batez ere Amerikako berezko hizkuntza batetik eratorritako izena delako, tukan, ketzal eta beste hainbat bezala, eta tokian tokiko izen arruntetatik abiatzea izen zientifikotik abiatzea baino egokiagoa delako kasurik gehienetan.

Proposamena: *Porzana carolina*, sora uroilanda.

Beste aukera batzuk: uroilanda karolinar.

Limnodromus griseus

Zangaluzeen taldeko kide tipikoa. Hanka eta moko luzeak ditu. Kumaldian gorrixka da eta neguan gris kolorekoa. Bere generoan dauden 3 kideen artean txikiena eta moko laburrena daukana.

Ipar Ameriketako artikoan kumatzen da eta kontinente hartako kostalde epelagoetan igarotzen du negua. Bere migrazio-bide luzean galdu egin dezakete norabidea eta urtero heltzen dira ale gutxi batzuk Europako kostaldeetara. Ez da sekula behatu Euskal Herrian, baina bai inguruan.



Taxonomia

- **Familia:** Scolopacidae (16 gen.; 92 sp.)
- **Generoa:** Limnodromus (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Scolopax grisea*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Limnodromus_griseus
- <https://avibase.ca/4A3B2CFF>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hegazti hau izendatzeko orduan bere kolorea eta izen zientifikoa hartzen dituzte aintzat hainbat hizkuntzatan: agujeta gris (ES), Tetolet gris (CA), Mazarico cincento (GA), Bécassin roux (FR), Maçarico-de-costas-brancas (PT), Kleine grijze snip (NL).

Ingelesak, aldiz, berezko generikoa dauka genero honetako 3 kideentzat, 'dowitcher', eta mokoaren luzeera nabarmentzen du espezie honetan, Short-billed dowitcher (EN).

Proposamena

Limnodromus generoak 3 espezie ditu eta hiruretako bakarra ere ez da ohikoa gure inguruan. Generoak ez dauka euskaraz tradiziozko izenik, ezta izen normalizaturik ere. Gure inguruko hizkuntza batzuetan badute (edo sortu dute) generiko espezifikorik Limnodromus generoko txori hauek izendatzeko (gaztelaniazko 'agujeta', adibidez); beste askotan, 'kuliska' edo 'istingor' izendatzen dituzte genero honetako kideak, euren

itxuragatik ez ezik, baita taxonomikoki erlazionatuta daudelako Limosa eta Gallinago generoekin ere.

Euskararen kasuan, iruditzen zaigu egokiagoa dela genero honentzat 'kuliska' izena aukeratzea (Limosa, Tringa eta Actitis generoentzat egin bezala), 'istingor' eta 'mingor' izenak scolopacidae familiako beste genero eta txori-talde batzuentzat gordez.

Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntza gehienetan bezala bere izen zientifikotik abiatuko ginateke, *kuliska grisa*, alegia. Egia da kumaldian gorriak direla, Limosa eta Limnodromus generoetako kide guztiak bezala, eta kolorea ez dela bereizgarriena espezie hauetan, baina iruditzen zaigu biderik egokiena izan daitekeela, beste hizkuntza batzuekin eta izen zientifikoarekin koherentzia gordetzen duelako.

Ezaugarri fisiko bereizgarri eta bakarrik ezean, horixe izan daiteke modurik zuzenena izena proposatzeko orduan.

Aurrerago, beharbada, generiko berri bat sortu beharra aztertu beharko da, genero honentzat berezia.

Proposamena: *Limnodromus griseus*, kuliska gris.

Limnodromus scolopaceus

Zangaluzeen taldeko kide tipikoa. Hanka eta moko luzeak ditu. Kumaldian arre-gorrixka da eta neguan gris kolorekoa. Bere generoan dauden 3 kideen artean mokorik luzeena daukana da.

Ipar Amerikako artikoan kumatzen da eta Mexikon igarotzen du negua. Hala ere, nahiko ohikoa da urtero ale gutxi batzuk Europara iristea, batez ere Erresuma Batura. Ez da sekula behatu Euskal Herrian, baina bai inguruan.



Taxonomia

- **Familia:** Scolopacidae (16 gen.; 92 sp.)
- **Generoa:** Limnodromus (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Limosa scolopacea*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Limnodromus_scolopaceus
- <https://avibase.ca/CB343E43>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Txori honek inguruko hizkuntzetan dituen izenak bi talde handitan bana daitezke. Batzuetan bere mokoaren luzeera aipatzen da: Long-billed Dowitcher (EN), Bécassin à long bec (FR), Langnæbbet Sneppeklire (NL). Iberiar penintsulako hizkuntzetan, ostera, oilagorrarekin duen nolabaiteko lotura azpimarratzen da (izen zientifikoan aipatzen dena, *scolopaceus*): Agujeta escolopácea (ES), Maçarico-escolopáceo-americano (PT), Punzonete escolopaceu (AS), Mazarico escolopáceo (GA). Katalana da salbuespena ingurumari honetan, Tetolet becllarg (CA).

Proposamena

Limnodromus generoak 3 espezie ditu eta hiruretako bakarra ere ez da ohikoa gure inguruan. Generoak ez dauka euskaraz tradiziozko izenik, ezta izen normalizaturik ere. Gure inguruko hizkuntza batzuetan badute (edo sortu dute) generiko espezifikorik Limnodromus generoko txori hauek izendatzeko (gaztelaniazko 'agujeta', adibidez); beste askotan, 'kuliska' edo 'istingor' izendatzen dituzte genero honetako kideak, euren itxuragatik ez ezik, baita taxonomikoki erlazionatuta daudelako Limosa eta Gallinago generoekin ere.

Euskararen kasuan, iruditzen zaigu egokiagoa dela genero honentzat 'kuliska' izena aukeratzea (Limosa, Tringa eta Actitis generoentzat egin bezala), 'istingor' eta 'mingor' izenak scolopacidae familiako beste genero eta txori-talde batzuentzat gordez.

Espezifikatzaileari dagokionez, euskaraz ere inguruko hizkuntzetan hartu dituzten bi bideak dirudite egokienak. Aukera bien artean, genero osoaren ikuspegi orokorra aztertuz gero, gaztelaniaren bidea hobetsiko genuke argi eta egokiagoa delakoan. Horrela, izen zientifikoan agertzen den bezala, kuliska honek oilagorrekin duen nolabaiteko harremana adieraztea izan daiteke aukerarik onena. Izan ere, 'kuliska mokoluze' estiloko izen bat ez litzateke oso argigarria, kulisken artean asko baitira mokoluzeak, baita espezie honena baino luzeagoa dutenak ere.

Eredu honetako izenak sortzeko orduan sarri erabili izan da euskaraz atributu-elkarketa, marratxorik gabeko aposizio bidez bideratua: *kakalardo tigreia*, *euli eskorpioia*, *marrazo balea*, *inurri lehoia*... Hegaztien artean ere badugu elkarketa horien adibiderik, hala nola *hontz gabiraia*, *txio erregetxoia* eta *txori zezena*. Lehen osagaia da hitz-elkarte hauetako sintagma-buru eta bigarren osagaiak egiten du adjektibo lana. Hau da, lehenengo izenak du esanahi nagusia eta bigarren izenak nolabait zehaztu egiten du lehenengoa, atributu funtzioa eginez.

Kuliska oilagor litzateke, beraz, izenik egokiena.

Proposamena: *Limnodromus scolopaceus*, kuliska oilagor.

Phaethon aethereus

Hegazti-talde txiki eta berezi bateko kidea da *Phaethon aethereus*, familia bakarra eta 3 espezie baino ez dituen taldekoa. Filogenetikoki beste itsas hegazti batzuegandik nahiko aldentuta dago.

Generoko 3 espezieak nahiko antzekoak dira: ia-ia zuriak dira, moko gorritzak dute eta isats luze-luzea da euren ezaugarri nabarmena.

Itsaso tropikaletan bizi dira denak eta oso pelagikoak dira. Euskal Herrian ez da inoiz behatu.



Taxonomia

- **Familia:** Phaethonidae (1 gen.; 3 sp.)
- **Generoa:** Phaeton (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Phaethon indicus*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Phaethon_aethereus
- <https://avibase.ca/7EE005BD>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hizkuntza anglosaxoi eta eskandinaviarretan "tropikoko txori" izenez ezagutzen dira Phaethon generoko kideak: Tropicbird (EN), Tropicvogel (DE), tropikfågel (SV), Tropikkfugl (NO), Keerkringvogel (NL).

Iberiar penintsuletako hizkuntzetan bere ihi edo lasto itxurako buztan luzea hartzen da oinarri generoa izendatzeko orduan: Rabo-de-palha (PT), Cua de jonc (CA), Rabijunco (ES).

Frantsesaren eta italieraren kasuan, ordea, izen zientifikoa egokitzuz sortu dute euren generikoa: Phaéton (FR) eta Fetonte (IT). Europa ekialdeko hizkuntza gehienetan ere (poloniera, serbiera, lituaniera, errumaniera eta abar) antzeko bidea jarraiki dute. Gogoan izan Faeton (edo Faetonte) Helios eguzki-jainkoaren semea zela greziar mitologian.

Espezifikatzaileari dagokionez, espezie zehatz honi "mokogorri" deritze hizkuntza guztietan.

Proposamena

Hegazti honen kasuan alderdirik zailena izen generikoa proposatzea da, familia eta genero honetako 3 kideentzat baliagarri izan daitekeena.

Inguruko hizkuntzek hartu dituzten hiru bideak izan daitezke egokiak, baina iruditzen zaigu frantsesaren eta italieraren bidea izan daitekeela garbiena eta errazena euskaraz, genero honetako kideei *faeton* deituz. *Tropikoko txori* edo *ihi-isats* ere izan zitezkeen, baina samurrena eta argigarriena aurrekoa iruditzen zaigu.

Espezifikatzaileari dagokionez, erabat deskriptibo eta diagnostikoa izan ez arren, gainontzeko hizkuntzen bidea jarraitzea iruditzen zaigu egokiena, hizkuntza arteko koherentzia lagungarri delakoan. *Faeton mokogorri*, beraz.

Bide beretik jarraituta, genero honetako beste 2 kideak ere erraz izenda ditzakegu, nazioarteko irizpide orokorra eta izen zientifikoa jarraituz: *faeton buztanzuria* (*P. lepturus*) eta *faeton buztangorria* (*P. rubicauda*).

Proposamena: *Phaeton aethereus*, faeton mokogorri.

Beste proposamen batzuk: tropikoko txori mokogorri, ihi-isats mokogorri, ihi-buztan mokogorri.

Thalasseus elegans

Ameriketako Pazifikoko kostaldean bizi da *Thalasseus elegans*. Txirrin edo txenaden taldeko kidea da. Laranja koloreko moko sendo eta luze nabarmena dauka eta buru beltz gandorduna.

Espezie neartikoa izan arren, azken urteotan kolonia txiki batzuk finkatu dira Europan, batzuetan txenada hankabeltzekin (*T. sandvicensis*) batera, eta gero eta ohikoagoa da ale solteak ikustea gure kontinenteko kostaldeetan.



Taxonomia

- **Familia:** Laridae (20 gen.; 104 sp.)
- **Generoa:** Thalasseus (8 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Sterna elegans*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Thalasseus_elegans
- <https://avibase.ca/3F9E1C51>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Txenada, txirrin eta itsas enaren taldeko kide gehien-gehienak oso antzekoak dira. Lumak gris kolorekoak, moko hori edo gorrizta eta burua normalean beltza. Hori dela eta, hizkuntza gehienetan ohikoa da ezaugarri ez-fisikoak erabiltzea espezieak izendatzeko (leku edo pertsona izenak, adibidez, edo izen zientifikotik eratorritako izen arruntak). Kasu honetan ere halaxe da eta izen zientifikotik abiatuta bataiatu dute txori hau hizkuntza gehienetan: Elegant tern (EN), Sterne élégante (FR), Charrán elegante (ES), Xatrac elegant (CA), Sierlijke stern (NL), Schmuckseeschwalbe (DE) eta abar.

Proposamena

Euskaraz ere antzeko bidea jarraituko genuke eta, izen zientifikoak iradokitzen duen bezala, hegazti honek hegaldirako duen liraintasuna aipa daiteke izen arruntean.

Gure esku ditugun sinonimo guztien artean (dotore, apain, airos, larden, lirain) edozein erabili daiteke, baina horietako bat beharbada lotuago dago mugimenduarekin eta hegaldiarekin, 'airos', eta hiztegi-tako adibideetan ere txoriekin lotuta agertzen zaigu: *txoria bezain airosa*. Gainera, iparraldeko hizkerei keinu bat ere egingo genieke horrela, oro har Hegoaldeko formak lehenetsi izan baitira txori izen arruntak zehazteko orduan.

Proposamena: *Thalasseus elegans*, txenada airos.

Beste proposamen batzuk: txenada lirain, txenada dotore.

Picus vaillantii

Okil berdeen taldeko kide berria, duela gutxira arte *Picus viridis* espeziearen azpiespezia baitzen. Euskal Herrian ditugun bi okil berdeen oso antzekoa da alderdi guztietatik.

Afrika iparraldean bakarrik bizi da, Magrebeko mendi altuenetako basoetan.

Taxonomia

- **Familia:** Picidae (33 gen.; 256 sp.)
- **Generoa:** Picus (15 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Picus viridis vaillantii*.



Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Picus_vaillantii
- <https://avibase.ca/42CF31E9>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Europako hizkuntza nagusiak aztertuz, espezie honen izenak bi taldetan banatzen dira. Gehienetan okil berdeen taldean izendatzeaz gain, bere jatorria edo bizitokia azpimarratzen da. Talde horretakoak ditugu Pito real bereber (ES), Picot verd del Magrib (CA), Atlasgrünspecht (DE) eta Atlasgröngöling (SV), adibidez.

Beste hizkuntza batzuek izen zientifikoa hartu dute oinarri, esate baterako, Levillant's (green) woodpecker (EN), Pic de Levillant (FR) eta Levillants specht (NL).

Proposamena

Espezie berri samarra da zientziarentzat, lehenago azpiespezie maila baitzuen, *Picus viridis* talde zabalean. Talde horretako bi kideren izenak dagoeneko ondo finkatuta dauden euskaraz, Euskal Herrian bizi direlako: *okil berde eurasiarra* eta *okil berde iberiarra*. Zentzuzkoa dirudi bide beretik jarraitu eta *okil berde magrebtar* erabiltzea espezie honentzat. Horrela, 'okil berde' generikoa izango genuke, itxuraz ia berdinak diren hiru espezieentzat eta, ondoren, espezifikatzaile geografiko bat, horixe baita 3 espezie hauek bereizteko erabili dezakegun ezaugarri nabarmenena, bestela oso-oso antzekoak direlako.

Jatorri geografikoa aukeratzeko orduan aukera egokia iruditzen zaigu magrebtar, izen nagusiaren atzetik jarri daitekeelako, eremu biogeografiko adierazgarria delako eta lehendik ere erabili izan dugulako beste espezieren batentzat (mika magrebtarra, *Pica mauritanica*).

Proposamena: *Picus vaillanti*, okil berde magrebtar.

Zoothera aurea

Zozo-birigarroen familiako kide asiarra. Gorpuzkeraz gure herrialdeko espezieen antzekoa, baina luma aldetik urrekara.

Taxonomikoki oso estu lotuta dauden 3 espeziek osatzen duten taldeko kidea (saillkapen batzuetan duela gutxira arte denak espezie bereko kide ziren): *Z. aurea*, *Z. major* eta *Z. dauma*. Itxuraz oso antzekoak dira, baina geografikoki banatuta bizi dira. *Z. aurea* Asia iparraldean bizi da, Siberia eta Mongolia inguruan batik bat.



Jatorriz espezie asiarrak diren arren, tarteka-marteka ale gutxi batzuk Europa mendebalderaino iristen dira.

Taxonomia

- **Familia:** Turdidae (20 gen.; 181 sp.)
- **Generoa:** Zoothera (20 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Turdus aureus*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Zoothera_aurea
- <https://avibase.ca/8E267A26>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hizkuntza gehienetan birigarro hauen kolorea aipatzen da izenean, hala nola, Griva daurada siberiana (CA), Grive dorée (FR), Tordo dourato (PT), Tordo dorato (IT), Goudlijster (NL), Guldtrast (SV). Gaztelaniaz ere erabili izan da *zorzal dorado*, nahiz eta une honetan estu-estu lotutako beste espezie batentzat erabili (*Z. dauma*).

Proposamena

Espezie eta genero honentzat ez daukagu izen generikorik euskaraz. Kontuan izan turdidoen familian 20 genero eta 181 espezie ezberdin ditugula. Zoothera generoaren barruan bertan ere 20 espezie ditugu.

Zoothera generoaren baitan badira nahiko antzekoak eta urre kolorekoak diren 10 espezie (gainontzeko 10 espezieak oso desberdinak dira, itxuraz, neurriz eta, batez ere, kolore aldetik). Urre kolorekoak diren 10 espezie horiek izendatzeko orduan oso egoki deritzogu inguruko hizkuntzek hartutako bideari eta *urre-birigarro* izendatuko genituzke 10 hegazti horiek. Lehendik ere baditugu euskaraz *urre-txirri* eta *urre-faisai*, adibidez, antzeko ezaugarriak dituzten espezie urrekarak izendatzeko.

Aipaturiko 10 espezie horiek nahiko antzekoak dira itxura aldetik eta zaila da espezifikatzaile fisiko deskriptibo bat aurkitzea bakoitzarentzat. Aldiz, eremu geografiko zehatzekoak dira, asko endemikoak, eta beharbada alderdi geografiko hori erabiltzea izan daiteke irtenbidea talde honentzat.

Horrela jokatzeko badugu, gorago aipatu dugun 3 espezieko talde hau (*Zoothera aurea*, *Zoothera major* eta *Zoothera dauma*) geografikoki bereizi dezakegu: urre-birigarro siberiarra (*Z. aurea*), urre-birigarro japoniarra (*Z. major*) eta urre-birigarro himalaiarra edo arrunta (*Z. dauma*). Beste hizkuntza batzuetan ere aurkituko ditugu 3 izenlagun horiek (siberiar, japoniar eta himalaiar).

Proposamena: *Zoothera aurea*, urre-birigarro siberiar.

Luscinia luscinia

L. luscinia txantxangorriaren neurriko txori txiki bat da, monotipikoa, kolore arrekoa eta sabelalde argia duena.

Espezie intsektiboro eta migratzailea da. Urretxindorraren senide hurbila, Europa eta Asiako basoetan bizi da, aurrekoa bezala, baina geografikoki iparralderago eta ekialderago.



Taxonomia

- **Familia:** Muscicapidae (51 gen.; 345 sp.)
- **Generoa:** Luscinia (4 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Luscinia philomela*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Errusiar_urretxindor
- <https://avibase.ca/6EC66752>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Urretxindorren taldeko (*Luscinia* generoa) ale tipikoa. Europa iparraldeko herritarrentzat urretxindor "arrunta" dena: Nattergal (NO), Nattergal (DK), Näktergal (SV). Ingelesez *urretxindor birigarroa* (Thrush Nightingale) deitzen diote, kantuagatik eta garai batean izandako izen zientifikoagatik.

Europa erdi eta hegoaldeko hizkuntza batzuetan, aldiz, bere jatorri geografikoa azpimarratzen dute, hala nola, Noordse Nachtegaal (NL), Rouxinol-oriental (PT) edo Ruiseñor Ruso (ES).

Proposamena

Familia zabala da muszikapidoena (345 espezie), baina genero murrizta *Luscinia* (4 espezie). Genero honetako 2 espeziek daukate euskarazko izen arrunta, urretxindorrak (*L. megarrhynchos*) eta papourdinak (*L. svecica*).

Genero honetako beste 2 kideentzat eta filogenetikoki estu lotuta dauden beste genero batzuetako hegaztientzat abiapuntu ona izan daitezke euskaraz dagoeneko finkatuta eta errotuta dauden bi izen horiek (*urretxindor* eta *papourdin*, *txindor* generikoagoa ahaztu gabe), gainontzeko generikoak sortzeko, kasu batzuetan *urretxindor*-gisako aldaerak, beste batzuetan *papo*-gisakoak. Talde honetan sar ditzakegu *Larvivora*, *Calliope*, *Tarsiger* eta *Irania* genero eurasiarrak; agian baita Afrika eta Asia hurrunekeo beste genero batzuk ere, *Sheppardia*, *Stiphornis*, *Cyarnis* eta beste.

Esate baterako, *Larvivora* generoko kideak lehen *Luscinia* generoan zeuden sartuta eta erabat koherentea izan daiteke horientzat *urretxindor* (edo *txindor*) erabiltzea. *Calliope* generoarentzat, aldiz, baliteke erabilgarriagoa izatea *papo-xxx* egitura (halakoxeak baitira, *papo-gorriak*, *papo-beltzak*...). Genero horientzat guztientzat proposamen zehatz eta osatuagoa egin dugu (ikus *Muscicapidae* familiaren inguruko txosten espezifikoak).

*Luscinia luscinia*ren kasu zehatzera itzuliz, nahiko garbia ematen du generikoak *urretxindor* izan behar duela, Euskal Herrian eta Europa mendebaldean ohiko den genero bereko urretxindorren (*L. megarrhynchos*) oso antzekoa delako, kolorez, heitez zein neurriz.

Espezifikatzaileari dagokionez, bereizgarri fisiko nabarmenik ez daukagunez, eta inguruko hizkuntzetan baliatu dituzten ereduak aztertuta, iruditzen zaigu ezaugarri geografikoa dela *Luscinia* biak (*L. luscinia* eta *L. megarrhynchos*) desberdintzeko modurik erraz eta egokiena. Bata Europa hego eta mendebaldean bizi da; bestea, berriz, Europa ekialdean eta iparraldean bereziki.

Aurreko guztiak aztertuta, iruditzen zaigu *ipar-urretxindor* dela txori espezie honentzat izenik aproposena, euskaraz dagoeneko ondo finkatuta dauden ipar-kaio eta ipar-bele bezalako egiturak baliatuta. Bestela, *ekialdeko urretxindor* ere izan zitekeen. Aldiz, gaztelaniaz aukeratu duten espezifikatzailea (*ruso*) ez zaigu egokia iruditzen, ez baitu ondo islatzen espezie honen benetako hedadura geografikoa, batez ere Europakoa bertakoa.

Proposamena: *Luscinia luscinia*, ipar-urretxindor.

Beste aukera batzuk: *ekialdeko urretxindor*.

Amandava amandava

Amandava generoko txori txiki eta koloretsua. Arra gorri-gorria kumaldian; emea kolorez apalagoa urte guztian zehar. Arrak zein emeak moko gorria dute, maskara beltza begialdean, buztan beltza eta ipurtalde gorri-gorri deigarria.

Asia hegoaldean bizi da, India eta Papua artean, baina etxe-animalia bezala saltzen da munduko hainbat herrialdetan, karioletan hazteko. Ihes egindako aleak munduko hainbat herrialdetara zabaldu dira. Espainia hegoaldean, adibidez, populazio zabal eta egonkorrak ditu 1970. hamarkadaz geroztik.



Taxonomia

- **Familia:** Estrildidae (34 gen.; 148 sp.)
- **Generoa:** Amandava (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Estrilda amandava*, *Fringilla amandava*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Amandava_amandava
- <https://avibase.ca/F30FC757>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hegazti honek nahiko sistematika aldakorra izan du. *Fringilla* generoan sartu zuten hasieran, *Estrilda* egon zen ondoren eta *Amandava* generoan dago gaur egun. Horrek eta bere jatorriak eragin zuzena izan du hegazti hauek beste hizkuntza batzuetan izendatzeko orduan eta nahiko irizpide desberdinak daude hizkuntzaren arabera.

Txori honen jatorri bengalarra adierazten dute hizkuntza batzuek, batez ere hizkuntza erromantzeek: Bengalí rojo (ES), Bengali rouge (FR), Bengali-vermelho (PT), Bengalino comune (IT).

Ingelesez ere jatorria adierazten da: Red avadavat (EN). Izan ere avadavat izenak, *Amandava* generikoak bezala, hegazti hauen nazioarteko komertzioa hasi zen Ahmedabad herriaren izena adierazten dute.

Bukatzeko, Europa erdi eta iparraldeko hainbat hizkuntzatan, espeziearen bilakaera taxonomikoa gogorarazten da. Batzuetan estrildidoa dela azpimarratzen dute, adibidez Tigerastrild (NO eta DE); beste batzuetan nolabaiteko fringillido jatorria, adibidez Röd tigerfink (SV) eta Tijgervink (NL). Aipatutako guztietan "tigre" aurrizkia aurkituko dugu.

Proposamena

Estrildidoak oso talde zabala dira. Tropiko inguruan bizi diren 34 genero eta 148 espezie dira. *Amandava* generoa, aldiz, txikia da, 3 espezie besterik ez.

Genero guzti horientzat euskarazko izen arruntak sortzea nahiko lan zaila izango litzateke. Beharbada, izen zientifikotik abiatzea izan daiteke irtenbiderik erraz eta egokiena kasurik gehienetan, esate baterako *Amandava* generoan, aurrez Estrilda generoan egin den bezala (*estrilda mokogorria* daukagu, esate baterako).

Beste aukera bat izan daiteke inguruko hizkuntza erromantzeen bidea jarraitzea eta "bengalar" izendatzea genero osoa. Hala ere, gure ustez, erraz eta garbiagoa da zientifikotik abiatzea, besteak beste *Amandava* generoko espezie guztiak ez direlako bengalarrak. Ingelesak hartutako bidea jarraituko genuke, beraz.

Amandava generikoaren alboan, espezifikatzaile egoki bat aurkitzea litzateke hurrengo urratsa. Hizkuntza askok "gorri" erabili dute eta horixe iruditzen zaigu guri ere egokiena euskarazko izena aukeratzeko orduan. Egia da arrak bakarrik direla gorriak (eta ez urte guztian zehar), baina emeak ere ipurgorriak dira eta *Amandava* generoko gainontzeko espezieekin alderatuta kolore gorri hori da ezaugarri bereizgarria.

Behin espezie hau izendatuta, genero honetako gainontzeko 2 espezieak ere erraz bataiatu daitezkeela iruditzen zaigu. Generoa, hortaz, horrelaxe geratuko litzaiguke:

- *Amandava amandava*: amandava gorri
- *Amandava formosa*: amandava berde
- *Amandava subflava*: amandava bekaingorri

Proposamena: *Amandava amandava*, amandava gorri.

Estrilda melpoda

Afrika, Asia eta Ozeaniako lurralde tropikaletan bizi diren hegaztien multzo zabala da estrildidoena (34 genero eta 148 espezie). Horien artean daude Estrilda generoko 17 espezieak.

*Estrilda melpoda*ren ezaugarri nabarmenena bere musu gorria da, Estrilda generoan bakarra ezaugarri horrekin.

Afrika tropikaleko mendebaldeko lurretan bizi da, baina etxe-animalia bezala ere saldu izan da Europan eta ihes egindako aleak ikus daitezke tarteka zenbait herrialdetan, besteak beste Iberiar Penintsulan.



Taxonomia

- **Familia:** Estrildidae (34 gen.; 148 sp.)
- **Generoa:** Estrilda (17 sp.)
- **Sinimoa(k):** *Fringilla melpoda*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Estrilda_melpoda
- <https://avibase.ca/1E79A7D7>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Oro har, hizkuntza guztietan azpimarratzen da bere musu gorri-laranja: Orange-cheeked waxbill (EN), Estrilda carinaranja (ES), Astrild à joues orange (FR), Bec de coral de galtes taronja (CA), Oranjekaakje (NL).

Proposamena

Estrilda honen ezaugarri fisiko nabarmena kontuan harturik, *estrilda musugorri* izendatuko genuke txori hau, gainontzeko hizkuntzetan egin duten bezalatsu.

Proposamena: *Estrilda melpoda*, estrilda musugorri.

Estrilda troglodytes

Estrildido gehienek bezala moko koloretsua du eta bekain gorria. Bereizgarriena bere ipurtxuntxur beltza da, estrildido gehienetan gorria baita.

Sahara hegoaldeko herrialdeetan bizi da, Senegal eta Etiopia bitartean. Kaiola-txorigisa dendetan erosi eta ihes egindako aleak munduko hainbat lurraldetan ikus daitezke, besteak beste Europa hegoaldean. Ez oraindik Euskal Herrian.



Taxonomia

- **Familia:** Estrildidae (34 gen.; 148 sp.)
- **Generoa:** Estrilda (17 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Estrilda xanthophrys*, *Fringilla troglodytes*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Estrilda_troglodytes
- <https://avibase.ca/D30DC715>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntzek bi bide nagusi baliatu dituzte, batik bat. Batzuek bere ipurtxuntxur beltza aipatzen dute: Black-rumped waxbill (EN), Estrilda culinegra (ES), Bec de coral cuanegre (CA). Beste batzuen bere kolore gris edo hausgara nabarmentzen dute: Astrild cendré (FR), Grauastrild (DE).

Proposamena

Genero honetako kideak aztertuz, *Estrilda troglodytes* espeziearen ezaugarri nabarmenena bere ipurtxuntxur beltza da. Hortaz, *estrilda ipurbeltz* proposatzen dugu espezie honentzat. Genero honetan bada beste ipurbeltz bat (*Estrilda rufibarba*), baina genero honetako 17 espezieen artean Afrikatik kanpo bizi den bakarra da, Arabian, eta hizkuntza gehienetan *estrilda arabiar* izendatzen dute. Gure ustez ere, horixe da egokiena.

Proposamena: *Estrilda troglodytes*, estrilda ipurbeltz.

Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Asier Sarasua Aranberrik landu du oinarrizko dokumentu hau. Ondoren, 8 txorizale euskaldunen artean banatu da: Miel Mari Elozegi, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue eta Jon Zubiaur.

- Lasok eta Rezolak ontzat eman dituzte izen guztiak eta Galarzak eta Unamunok ez dute iruzkinik egin.
- Elosegik, Leizak, Unanuek eta Zubiaurrek ere ontzat eman dituzte izen gehienak, baina zenbait ohar egin dituzte hiruzpalau espezieren kasuan eta dokumentu orokorrera eraman dira.
 - *Thalasseus elegans*: Leizak aipatu du nahiago duela 'txenada dotore' aukera.
 - *Ixobrychus sturmi*: Unanuek adierazi du 'amiltxoritxo' generikoa proposatu daitekeela.
 - *Estrilda melpada*: Leizak adierazi du nahiago duela 'estrilda musularanja'. "Laranja" adjektiboak ez dauka tradizioz euskarazko animalia-izenetan, baina aurrera begira, hegazti tropikalak eta hegazti-talde zabalak izendatzeko orduan, lagungarri izango da kolore-sorta zabaltzea eta 'laranja' hau zerrendara gehitzea interesgarria izan daiteke; gainera, ez dago inolako arazorik kolore berriak erabiltzen hasteko (bioleta, gris, arrosa... ere hasi gara erabiltzen dagoeneko).
 - Zalantza eta eztabaida nagusia atributu-elkarketen inguruan izan da. Horren inguruko aipamenak egin dituzte Miel Mari Elosegik, Jon Zubiaurrek, Aitor Leizak eta Azaitz Unanuek. Esate baterako, *Limnodromus scolopaceus* espeziearentzat 'kuliska oilagor' proposatu da. Aldiz, *Anser cygnoides*-en kasuan Iribarren (2001) proposamena daukagu, 'beltxarga-antzara'. Horrelako kasuetarako irizpide garbiagoak beharko genituzke eta beti antzeko bidea jarraitu. Aurrez ere antzeko arazoak izan ditugu eta aurrerago ere antzeko arazoak aurkituko ditugu. Gaia sakonago eta hobeto lantzeko proposamena onartu da, besteak beste Terminologia Batzordearekin, eta bien bitartean txosten honetako proposamenak bere horretan utzi ditugu.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoa), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernua).

Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2024ko apirilean